

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

88/2018 Foru Agindua, otsailaren 23koa, zeinaren bidez onartzen den uztailaren 18ko 246/2017 Foru Agindua aldatzea, Arabako Lurralde Historikoko ehiza jardueraren berariazko xedapenak arautzen dituena 2017-2018 denboraldirako

Uztailaren 18ko 246/2017 Foru Aginduaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan ehiza egiteko 2017-2018 denboraldirako berariazko xedapenak onartu zituen Nekazaritza Saileko diputatuak.

Basurdea uxaldian ehizatzeke baimendutako aldiari dagokionez, horren azken egun bezala otsailaren 25a ezarri zen. Hala ere, kanpainaren hasieran espezie horren gainean aurreikusitako presioaren intentsitatea ezin izan da lortu, Arabako Lurralde Historikoan uxaldi asko bertan behera utzi behar izan direlako ehizan aritzeko eguraldi txarrarengatik. Horrengatik, kontuan izanik espezie horrek nekazaritzan egiten dituen kalte gero eta handiagoei aurrea hartzeko beharra, eta espeziearen populazio hazkundearen ondorioz zirkulazio istripuak gertatzeko arriskua, agerian jarri da 2018ko martxoaren 31ra arte luzatu behar dela animalia hori uxaldian ehizatzeke baimendutako aldia.

Horrengatik, Nekazaritza Zuzendaritzak proposatuta, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Uztailaren 18ko 246/2017 Foru Aginduaren C) letrako 1.1 atala aldatzea, jarraian azaltzen den moduan

honen lekuan:

“2018ko otsailaren 25”

hau esan behar du:

“2018ko martxoaren 31”

AZKEN XEDAPENA

Onartzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean foru agindu hau, ALHAOn edonoiz argitaratzen dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 23a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritzako zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE